Euskel etala

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKIÑEZ TA BIDAIZ IDAZKIYAK KIRIKIÑO'RI

Emakumea eta Aberria

Deba'tik

...dator udara, oztia, jaia eta abar nai ...eta nai baño geyago gure urira dakazu. Egunero dantzaketa, an edo emen; ...dantzaketa beti lotua; gure E. A. Bazkuna'k oraintxe du bere zintzotasuna agerian aldia. Zintzo agertuko ote gera?

...kuneko bakoitzak bere buruari egin ...diogun galdea da au; eta galde onen ...ren zintzo jokatzeko asmoa artu. Ba ...ra beartzen gaitu gure artean irasi ...a E. A. B.-k.

...da gure araudia uskerizko araudia; ...tasunarena da; bakoitzak bere onoi...ak bere Jaungoiko eta bere Aberria'ri ...i arazten duana. Eta araudia gorde...alegindu bear gera; orretara beartu ...ba, bazkunan sartzean, bazkide egi... Batez ere dantza zaleak dan...lotuari betiko agur egin, betiko ...egin dagiogun geure Jaungoikoa'gatik, ...aberria'gatik, geure buruagatik. Ge...buruagatik bai; ba ardura gabe geron ...dantza lotuari emanda ibilliaz, ge...buruak zabarke-i eta likizkerian eman...ibiltz eta onekin obenari.

...dantza lotu zalearen asmo onak, ...egiteko asmorik ezak ez dagiguzan ...aipatu geure zalekeriaren aitzaki, ...aitzaki onen aurka aurrean ditugu ...goikoaren Lege eta Bere ordekoaren ...tsak. Baita batere oldosten badegu, ...buru-argia ere.

...dera zerbaiten gaitik jarri gera onela ...galerazoten eta eragozten digun ar...baten pian.

LENDAKARIA

...da berriz neskatxa, alegindu zaite ...era erabiltzen; eduki beti gogoan zu...kuntza, eta mingañean ere ala izango ...alperrik erderaz ekin, euzkera mai...'deru, maitasun orrek orrela itz egi...piñiko zaitu.

Beste bat

...k ez ditugu ikusi, ez ditugu nabaitu, ...degu entzun; baña esan digutenez, gu...ri txukun eta Jaungoiko zale ontan, ...da mutil gastetxo aldra bat "sport" ...dalakoaren aitzakian batzartu, eta ...n batzar eta jolas aldietan beren ar...n parra-parra birao zikiña ezerez be...ta darabilkitenak. Guk ez dakigu egiz ...eko, au onela dan; ez da entzute bat ...erik; baña zurru-murru au jaso egi...n degu egia balitz ere bada-ezpadan; ...'otsagarrikeri au galerazitzea dagokie...k jakitun ipintzeko.

...Erri-agintariak eta gurasoak gure dei ...entzun bezate; ayek, urian nun nolako ...untza erabilten dan jakitera aleginduaz, ...dagokienai beren zigorra emanaz; eta ...asoak beren semeak nola dabiltzan eta ze izkuntza lagun artean dabilkiten jakiñaz, iñori baño geyago berabei dagokie ba ardura au edukitzea-ta. Ez da gure esana, Jaungoikoa'kiko duten egin bearra baño.

E. A. BAZKUNA'KO BAT

Neskatxa; jantzi zaite nai dezun erara, nai dezun "modara" eta nai dezun gaiez, baña etzaite nabarmen agertu, eta ez dezazu zure nabarmenkeria zeure eta besteren gogorik loitu. Jaungoikoa'ren aurrean zer ikusi aundia dezu onetzaz; eta aberriaren onak au eskatzen dizu.

Neskatxen aurreskua

Bein bakarrik gertatu zait ikustea. Erromeri baten zan; eta danbolin soñuak notintza zelaiaren erdira inguratu zuan garayan ikusi nuan neskatxa aldrea guzien erdira, soka eginda dantzaurrea ateratzera zetorrela.

Egundo ezerk lotsatu naben aña, lotsatu nindun emakume ayek era artan dantzara irteten ikusteak. Gizonak oi bezela, saltoka, ankak jasoaz guziai omen egiñaz, ¡ze gauza itxusia iruditu zitzaidan! Eta geyago bikotia lagun billa irten, eta gizaseme bat erdian zutela aurreskulari arengana aurkeztu ziranian. Geyago berriz, aurreskularia, gizaseme oni egundoko dantza eta buru jeistean aurrekaldian egiten ikusi nuanian batekoz beste izan ba'litz bezela.

Neri bezela, nik uste, edonori irudituko zitzayola dantza ura egoki eza; eta ura bezela beste edozein emakumek ateratzen duana, ba itxura dagonez, ez da lenbizikoa neskatxak au egitea. Geyago, bai omen dira uritxoak, neskatxak au noiz nai egiten dutenak.

¡Ez da ba emakumientzat gauza egokia, gizonari omen ori egitea! Nik uste neskatxa aurreskulariak ez dutela iñoiz ere oldostu beren buruai ematen dioten makillada au egiten duten bakoitzean; ba ez da besterik nor bere burua eraztea baño dantzaurrearen lagun billako egite ori. Jakiña dago, dantza au gizonak ateratzeko asmatua danez, lagun billatzea, eta lagun artzea, emakumentzat omengarri diran erakuak ditu, eta orrela dantza guzian; baña augatik, batekoz beste eginda itxusi ematen du, emakumeak gizonezkoarenak egitean, bere notindasuna parregarri ipinten dualako.

Dantza au onela egiten zale diran neskatxak gogoan izan bear duten gauza da au. Alperrik aurreskularirik onenak izango dira, aurreskua ateratzen duten bakoitzian beren buruak parregarri ipintzen dituzte, beren buruak makurtzen dituzte; beren egitea dagokien begiramen eta omena, berak gizonezkoai egiten diotelako. Eta au emakumeak beti gogoan eduki bear du.

TENE

LA ALIANZA DE SANTANDER
COMPAÑIA ANONIMA DE SEGUROS. DOMICILIADA EN BARCELONA
(FILIAL DE LA UNION Y EL FENIX ESPAÑOL)
Subdirectores en Vizcaya para el ramo de incendios:
Sres. Belausteguigoitia y Gochi — Gran Vía, 23.-Teléfono 2.995

"EL DEPOSITO MUEBLERO"
Abiertos sus almacenes, ofrece al público un inmenso surtido de camas, armarios, mesillas, lavabos, coquetas, sillas, cunas, colchones, etc., etc.
PRECIOS DE FABRICA :—: VISITEN Y SE CONVENCERAN
Somera, núm. 39.-Teléfono 9.367

FRITZ NEUMEYER, A. G MUNICH
con BRIEGLEB HANSEN & Co. GOTHA
TURBINAS HIDRÁULICAS
MODERNAS, PARA TODA CLASE DE SALTOS DE AGUA
Reguladores de gran precisión
:: Instalación propia para ensayo y comprobación de Turbinas y Reguladores
IMPORTANTES REFERENCIAS DE INSTALACIONES EJECUTADAS EN ESPAÑA.
6.000 instalaciones ejecutadas en todo el mundo
Representante general para España:
RICARDO ZARAGOZA
Pelayo, 42 Barcelona

DE LLOBET
...mbla de las Flores, número 4, 1.º BARCELONA
Médico exagregado de los Hospitales de París. Consulta de 3 a 5. Económica de 12 a 2.
Garganta - Nariz - Oídos

EUSKEL IXENAK

TOLOSA'N.—"Gotzoneak", Egaña'tar Erroka eta Gorosabel'tar Euloge'ren alabari.

"Justiñe", Arretxe'tar Gumersinda eta Jauregi'tar Andone'ren alabari.

DURANGO'N.—"Imanol", Azkordabeitia'tar Alberta eta Lamikiz'tar Gotzone'ren semiari.

BERGARA'N. — "Elixabete Anastase", Bakedano'tar Patirka'ren alabari; aitama bitxi ixanik Ortiz-Zarate'tar Joseba eta Alberdi'tar Elixabete.

AZPEITI'N. — "Imanol", Agirre'tar Kuireka ta Odriozola'tar Miren'en semiari.

Zorijonak ume ta guraso ta aitama bitxijeri. Olantxe danak.

Izparrak bidaiz

Gernika

Elorrio'ra peregrinazinuan joan ziranak poz-pozik biurtu ziran igandean.

Bosteunetik gora joan ziran emendik.

ERROMERIA

San Antoniñon urrengo astelenekoa egin zan atzo.

Lagun asko etorri zan arren eztogu uste, beste urtectako beste ikusi gendunik. Aztakeria ugari izan zan idi-probia'ren ordez gizon-probia egon zan-da.

Ori ezta txarrena baña, dirua ugari jokatu zala baño.

Abere gauzak egiten asten bagara, eta ori erakusten deusku atzoko proba eta arratzalde eta illuntzeko alkar-dautzeak, datozela abereak geure lanak egiten da kitu.

Guri samatik soka bana lotuta askan ipiñi, ta datozela asto ta idi makilla banagaz noizik-noizera geuri atzea beratuten.

Onan egon bear leukeen askotxu gagozala gizon artean da nago.

Gabeko bederatzirakarte egon zan erromeria. Geu ezkiñan joan baña ibilli bear izan eban an zikinkeri eta matazea.

Auteskunde gabeko erromeria, atzokoa eta onek, eztira bere gela-nagosian Josu'ren biotza erregetzat daukan Udalak egin bear dituzan gauzak.

¿ZORIONA NOR?

Gizon jakitun batek bere baratzeko ate-buruan idazkun auxe ipiñi eban:

"Egiz zoriona dala agertzen dauanarentzat izango da baratz au".

Egun gitxi igaro orduko jakitunaren etxian gizon ezezagun bat agertu zan; eta bat-batera asi zan:

—Zure baratzeko giltzaren eske nayntortzu, mundu guztian be, ni baño gizon zorionekoagorik eztago-ta.

Baña jakitun burlazalia baizan, bai zurra bere, eta erantzun eutsan:

—"Gizona, etzara zu zoriontsua, zoriontsua baziña, neure baratzaren gurariik ezeunke eukiko-ta".

Eta irri-barretxu bat egiñik, gizon gizasua ago bete azurragaz itxi eban.

Egiz, errazoia, gizon jakitun arena zan, mundu onetan eztago guztiz zoriontsu danik-eta.

BELU-MENDU

Bagilla-19.

Azpeiti

GAXORIK.—Oeratuta arkitzen da gure adizkide ta U. B. B.-ko lendakari Aizpuru'tar Peli.

Baita ere denbora baterako juan zaigu Bidania'ra aize osasungarriak artzera batzoki onetako bazkide Olazabal'tar Ander.

Lenbailen pixkortu ditezela biyak.

JAYOTZA.—Gaur ugutzatu dute eliz nagusian gure adizkide ta abertzale Agirre'tar Kuireka ta bere emazte Odriozola'tar Miren'en semetxoa, "Imanol" euzkel-izenakin; aita ama ordezko Agirre'tar Mikel eta Agirre'tar Miren; zorionak guziori, batez ere euri Kuireka; ta emaztien bildur zeaten abertzale epelak ikasi.

NASKALDIYA.—Juan zaigu Palentzi'ra denborale bateko gure adizkide ta abertzale Egiguren'tar Lon'en emaztea beren alabatxo Deñe'kin.

MIN ZARRA DUEN JAUN BAT.—Entzun degu oso asarratuta dagola gure auzo-erriko apaiz jaun bat, lengo egunean Loyola aldeko neska-mutikuek orren errira ezpata-dantzariyekin eraman zuten ikurriñagatik; ikusten danez urteak igaro arr, en etzayo oraindik joan urdalleko miñik arako Bilbao'n bere illoba aldun izandakuari Sota ta lagunak eman zioten aztindu gogoengarri ura ezkero; baita ere entzun degu jaun orrek ez daukala aztuta erri onetan dagon bazkun bat; tira ba kontu euki txonitz lekutik zer itzegiten degun, bada leku ori ez da gauza oetako egiña ta ikurrin kontuan betaurreko on batzuk jarri, oñik sartu gabe.

POZ TA ATSEKABE.—Biyak esan gentzale izan ditugula azkenengo auteskundietan; atsekabe Bizkayan egin zaizkigun txakurkeriyakatik, bañan poz Gipuzkoan izan degun gurendagatik. Zoriyonak aldun berriyai, batez ere gure ezagun Barriola jaunari, eta erri onetako jauntxu aldun ez diranakin kontu, bada ikusten ditugu aldundi orretan sudurra aurreregi dabilkitela.

ERLO MENDI

Durango

Poz-pozik irakurri dogu Amagoya'ren idazkija, ba aspaldijan ixilik egon dan lez uste gendun beste idazlien antzera mututu zala betiko. Ez da onela jazo zorionian.

Ni be ixilik egon naz, beste arazo batzuk euki dodazalako, baña Amagoya'ren idazki sutsua irakurrita emen nator barriro irakurlieri zeozertxu esaten.

ERRI-JAYAK.—Igandian ozte izugarrija batu zan erri onetan Deun Andoni jayak dirala-ta. Goizian amaiketan ikusi gendun pelota-jokua eskuz Begoña eta Uriben artian; irabasi eban erraz Uribek.

Onen ondoren aurreskularien sariketa. Lenengo sarija, 25 laurleko, Amezua'tar Lon'ek irabasi eban; bigarrena, 20 laurleko, Iturralde'tar Andoni'k; irugarrena, 15 laurleko. Azueta'tar Julenek; laugarrena, 10 laurleko, Gomez'tar Josebak, eta boskarrena, 5 laurleko, Arrieta'tar Emeterik. Ederto dantzau eben danok. Zorionak eurei.

Arrastiko jruretan pelota-partidua eskuz, Marino-eta Mondragonesek, Etxabe anayen aurka. Oso ederto egon ziran gustijak, irabasirik Etxabetarrak.

Jai onek euzko-usaindunak pozik ikusi genduzan; beste gustija dantza zikiña eta atzerritarrena zan.

NASKALDIYA.—Igandian agurtau genduzan erri onetan Gernikako Beobide'tar Jon eta bere emazte Gesuraga'tar Jone; Gomeza'tar Toma, Gernikar Batzoki'ko lendakarija, ta bere emazte Ibieta'tar Josune; Izaga'tar Peli; Gurutzeta'tar Domeka, Bareño'tar Juli, Etxebarria'tar Errapel, Zabaleta'tar Nazari; Aranburu'tar Mikel; Andonegi'tar Mikel; Ortueta'tar Anakelda: Mota'tar Koldobika; Ugarriza'tar Joseba; Arrien'tar Julen; Arrien'tar Koldobika, Basterra'tar Erramon, Zubizarreta'tar Julene, eta beste abertzale asko, oin gomutaten eztoguzanak.

ASARRE DIRA.—Emengo Kulturaleko gastiak asarre dira endore ta zezen-plazako batzagaz; astelenian juan ziran onetaiko batzuk zezenketara ta aurrian bialdu ebezan bertatik. Dana da jai onetan batza orri ipiñi eutselako ostikolarijen partiduak eta uste ebielako kalte egingo eutela zezenkeran. ¿Zer da? ¿eurak bakarrik bizi biar dabe ala? Endoriak barriz galazo eutsen iragarrijak banatzen, esanik lenen a batza aregaz aitu biar ebela. ¿Ederto dago ori? Atonduko dira, or konpon.

GOGORRA

Korteznbi

JAYAK—Datorren iganderako, Batzoki zabalkundiaren urte-urrena dala-ta, eusko usaindun jai batzuk gertuteko ustian dabilz emengo abertzaleak.

Goizean amarretan jaupa nagosia izango da, kanpoko abeslari ta guzti, zelan albada beintzat.

Meza ostean aurreskua eta gero Batzoki gelatan bazkari orokarra.

Bazkari onetan jarteko emon len-bai-len zeuen izenak Batzoki kontzergiari.

Bazkal-ostean Imanol, Muruetakok eta beste izneurlarien batek ekingo dautse eta izlarien bat bere izan leiteke agertutia.

Tira ba, mutillak gertu iganderako eta eldu guzti-guztiok Batzoki-zabalkunde urteurren onen jai guztietara.

Batez bere meza nagosi ta bazkarira, ¡ez utsik egin gero!

IZKIRIMIRIA.—Jatetxe bateko areto nagozian jazo ei-zan au:

Bazkaltzen jesarri ta berialaxe ingalandar emakume batek esan ei-eutsan otseñari:

—Leyo ori, arren, idigi egizu beroak kiskaldu bearrean nauko-ta.

Otseñak esana egitearren idigi eban leyoa.

Baña agertu zan beste emakumetxu bat, eta dirautso:

—Urliya, arren, itxi egizu leyo ori otzak kikildu bear nau-ta.

Ordurarte isillik egoan batek:

—Gizona, bein amaitu egizu, edo idigi edo itzi.

—¿Zer egitea nai dozu bada?

—Ara, lenengo leyoa zabalik itzi egizu emakume ori il artean; gero leyoa itxi beste ori kiskaldu daiten, eta noiz-edo-noiz bakea eukiko dogu.

BELU-MENDU

Deba

KOLDOBIKATARRAK. — Juan dan igandian egin zuten jaya emengo Koldobikatarrak beren Deun zaindariaren egunа ospatuaz.

Beste urtietako aldian gauza gutxi egin zuten, bada Aita Laskibarr'ek egindako txonitz ederra kendu ezkero, illero egin oi dutena bezelakua izan zan.

Orain urrenguan egin genduzan galdera batzuk Koldobikatarren Bazkintza Artezkariatzaz. Iñork ez du erantzun, baña ikusia dago Bazkintza ori ez dala iñor eta beren gañetik norbaitek nai duan dana egiten duala... eta abertzalien aurka alegiñez!

OSTIKO-JOKUA.—Igandian Zumaya'n jokatu zuten ostiko-partidu bat, "Amaya" zumayarrak eta "Andutz" debarrak, eurok irabasirik.

PELOTA-PARTIDUA.—Ulazia'k eta Baltzola'k jokatu dute eskuz pelota-partidu bat, Ulazia'k erraz irabasirik.

EIBARR'ERA.—"Lagun Artea" kirol-bazkunak erabaki du Eibarr'en egiteko dan kirol-aldira kiroltzale batzuk bialtzia bere izenez.

ALDAKUNTZA.—Emengo "Santa Maria" txadonan apaitzan dagon Zukia'tar Joseba jauna Donosti'ko "Antigua" txadonera aldatu du gotzaiak.

ORIO'RA.—Eresbatza Deun Kepa jayetan Orio'ra dua bi edo iru eguneko.

ESKABIDE BAT.—Udalari bertoko eresbatzak ereskin (istrumento) batzuk eskatu dioz eta Udala'k ez dau oraindik erabakirik artu gai onetzaz.

LAGUN AZKARRAK.—Gure lagun onak diran Andonegi'tar Andoni eta Berazaluze'tar Pillipa, ikastolako azterketetan oso "nota" onak aterata etorri dira gure artera.

Tira, gu bezelako kaiku artian, bateren batzuk biar dizkiagu azkarrak ere. Zorionak biotzez.

ZARATAKA.—Zer esan aundiak ipiñi ditu "Casino Económico" aitatu duan izparringi batek. Izan ere, "casino" ortako gizon "pakiosuak" etzuten ainbeste meregizi. Gizajuak...

ASERRIA.—Bart aserre zaratak ibilli dira urian kirol-bazkunak dirala-ta. Anai arteko aserria, ez da kirolaren zergaitiak daruzkuna. Obe da eun aldiz kirola atzeratutia aserreka anai artian ibiltia baño.

ASIER

Melilla

Agur Kirikiño: Gaur nator lenengo aldiz idazkortza artuta zerbait idazteko asmoz eta zeuk ontzat artzen badozu, argitaldu eta bestela otsarara.

Or Euzkadi'ko basterretan txapel-okerrez inguratuta dagozanian "viva España" ibilli oi diranak, euren "viva" didarrok benetakuek ba'dira, orain dauke era ederra, etorri ona Aprike aldera, eta or Tizzi Azza aldien euren ama Españieri lagunduteko; sekule iñok iñoren bierrik ixan ba'dau ointxe dau Españiek seme onen bierra; baña orrek gora-bera, derrigorrien ekarrite gaukezanok zaindu bierko dogu.

Illa onen bosteko gudaketan gu be an giñiien Buaforan azpiko aldien geure kañoyekaz; gu urrun samar gengozan baña ikusten genduzen zelan gogor eiten eben moruek infanteriako gudamutillekin; amaike errubakok pagau eban egun aretan.

Melillera ekarri gaitue oin illebetian atseden eiteko, emen be ez ondo baña kanpuen baño obeto egongo gariela uste dogu emen.

Kirikiño, emen gure artien badagoz euzkeldunek gudari etorri orduko "viva España" didarrez ibilten ziranak, eurek diñuenez zer esaten be ezekijela, beste batzuk esaten eutsena eiten ibilten ziriala; baña emendik juandakuan zer ein bier daben baidakijela diñue. Ikusiko dogu ba berbie zaintzen daben.

JA

Bagilla-1.

CRONICA OBRERA

AGRUPACION DE OBREROS VASCOS FORJADORES

Se convoca a junta ordinaria mensual para el domingo, día 24, a las diez de la mañana.

Siendo los asuntos a tratar de gran importancia, se ruega no falte ninguno.—El presidente.

Algodol-eunak elten ditu
G. MIRET ROSELLO'K
Etxe onek denderuei bakarrik saltzen dautse. Beti daukoz gertu
Sargak, Vichys'ek, Drillek eta Franelak
Landola: Provenza, 273. — BARCELONA

HOTEL RESTAURANT TORRONTEGUI
Plaza Nueva, 12, y Fueros, 14.

JOSE GOENAGA
Maquinarias para Minas, Ferrocarriles, Talleres, Regadios.
Alameda de Mazarredo, 5.—BILBAO

Impreso con tinta Hunolt.—BEASAIN

LA AZUCENA
Fábrica de flores. - Plaza Nueva, 12

SE ALQUILA
piso amueblado, en Urdúliz, a cincuenta metros de la estación.
Informes: EUZKADI.

SASTRERIA - CAMISERIA
MUÑOZ
INSIGNIAS DEL ATHLETIC CLUB
en imperdibles para corbata y sombrero, sujetadores de corbata y cinturones.
Bidebarrieta, 12, y Jardines, 1.—Tel. 337.

VENDO CASAS: Campo Volantín, Ollerías, San Francisco, Concepción, Barrencalle, Aurrecoechea, Gardoqui, Cristo, Dos de Mayo, Tendería, Ripa, Artecalle, Zorroza, Deusto, Neguri, Portugalete, Sondica, Amorebieta. TERRENOS: Cristo, Parque, Basurto, Zabala, Concepción, Begoña, Deusto, Portugalete, Erandio. CASERIOS: Erandio, Lujua, Sondica. BLAS ROLAECHE, corredor de fincas, Ledesma, 12.

AGENCIA FUNERARIA
DE LOS
HIJOS DE BARO
Carrozas, féretros, coronas, hábitos
CARNICERIA VIEJA, 2
Teléfono 294.

TINTAS WIGTY
Muy negra y azul-negra para escribir, violeta-negra y azul-negra para copiar, son las más limpias y fluidas. Concesionarios: VIUDA Y SOBRINO DE VILLAR Gran Vía, 32. Librería.

APOPLEJIA
PARALISIS
SE EVITA Y CURA RADICALMENTE CON
'ANTIAPOPLETICO — BERDAGUER'
DEPURA Y ACTIVA LA CIRCULACION DE LA SANGRE
25 AÑOS DE EXITO CRECIENTE

Si nota usted hormigueos, falta de tacto, calambres o rampa, zumbidos en los oídos, dolor de cabeza, pérdida de memoria, entorpecimiento, pesadez en la vista y puntos luminosos, dificultad al hablar, mareos, vahídos, sofocaciones, frecuente necesidad de dormir, etcétera; si alguno de su familia ha padecido de APOPLEJIA o PARALISIS; si está usted predispuesto a *ella* por su temperamento sanguíneo, cuello corto, obesidad, etcétera; si está paralítico, arrastra su pierna o tiene inútil su mano; si balbucea al hablar o está privado de palabra y tiene la boca torcida hacia un lado; si su postración es absoluta..., no vacile un momento y tome el maravilloso ANTIAPOPLETICO BERDAGUER, pues millares de personas, en casos análogos al de usted, a *él* deben su envidiable salud.

Puramente vegetal. Nunca perjudica. Anula la muerte repentina.

De venta en *Bilbao*: Centro Farmacéutico Vizcaíno. Muelle de Uribitarte, 13. Instrucciones y prospectos gratis: Laboratorio J. GONZALEZ NUÑEZ. Sepúlveda, 172, principal.—BARCELONA.

BAÑOS DE ELORRIO
Dos manantiales: sulfurado cálcicas, variedad sulphidoicas-nitrogenadas, las de Belerín; y sulfurosas carbónicas, las de Santa Catalina.
Temporada oficial: 1.º de junio a 30 septiembre. Pensión: 10 pesetas.

Cadenas "TITAN"



Para TODA MARCA de Autocamiones de CUALQUIER TONELAJE de acero especial, cromo - níquel garantizado.
Cadenas para Motocicletas Cadenas para Bicicletas.
Pelayo, 16, entlo.—BARCELONA